

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 2/2016 Foru Dekretua, urtarrilaren 12koa, onartzen dituen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eta sozietateen gaineko zergan aplikatu beharreko eguneratze koefizienteak

Azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenak, xedatzen duenaren arabera, kostu bidezko edo kostu gabeko eskualdaketetan, dagozkien ondare elementuen eskuratze balioa eguneratu egingo da erregelamendu bidez onartzen diren koefizienteak aplikatuz, batez ere haien eskuratze egunetik kontsumoko prezioen indizeak izandako bilakaera eta haien eskualdatze ekitaldirako aurretiaz jotzen dena kontuan hartuz.

Arazoi horrengatik, foru dekretu honen xedea da 2016ko ekitaldian egiten diren eskualdaketek aplikatu beharreko eguneratze koefiziente horiek finkatzea, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren pean dauden ondare irabazien edo galeren zenbatekoa kalkulatzeko helburuz.

Beste alde batetik, abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, xedatzen duenaren arabera, ibilgetu materialaren, ukiezinaren edo higiezinaren inbertsioen ondare elementuak eskualdatzean lortutako errenta positiboak zerga oinarrian integrazteko, ondoko hau kendu behar da, errenta horien mugaraino: eskualdatutako elementuari buruz legez baimendutako azken eguneratze edo elementu hori eskuratu zen egunetik, geroagokoa bada, izandako monetaren balio galeraren zenbatekoa, erregela batzuen arabera kalkulatuta. Lehenengo erregelak dio eskualdatutako ondare elementuen eskuratze prezioa edo ekoizpen kostua eta haiei dagozkien amortizazio metatuak erregelamendu bidez ezartzen diren koefiziente biderkatuko direla.

Horren ondorioz, foru dekretu honen xedea da erregelamenduzko garapen hori egitea, adierazi diren koefizienteak finkatuz, 2016an hasten diren zergaldien barruan egindako eskualdaketek aplikatzeko.

Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordearen Arautegi Organikoak 3. artikulua hiru paragrafoan aurreikusitakoaren arabera, batzorde horren txostena ez da aginduzkoa.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostenari atxiki zaio.

Horrengatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

1. artikulua. 2016ko ekitaldian aplikatu beharreko eguneratze koefizienteak, pertsona fisikoen errentaren gaineko foru arauaren 45.2 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako

Azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenak, 45.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko, ondoko hauek izango dira 2016ko ekitaldian egiten diren eskualdaketek aplikatu beharreko eguneratze koefizienteak:

EKITALDIAK	KOEFIZIENTEAK
1994 eta lehenagokoak	1,569
1995	1,666

EKITALDIAK	KOEFIZIENTEAK
1996	1,605
1997	1,569
1998	1,534
1999	1,492
2000	1,442
2001	1,388
2002	1,339
2003	1,302
2004	1,264
2005	1,224
2006	1,183
2007	1,151
2008	1,105
2009	1,102
2010	1,084
2011	1,051
2012	1,028
2013	1,012
2014	1,010
2015	1,010
2016	1,000

Hala eta guztiz ere, ondare elementua 1994ko abenduaren 31n eskuratu bada, 1995eko eguneratze koefizientea aplikatuko da.

2. artikulua. Sozietateen gaineko zergan 2016an hasten diren zergaldietarako aplikatu beharreko moneta zuzenketako koefizienteak

Bat. 2016. urtean hasten diren zergaldietarako, hauek izango dira abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 40.9 artikuluan aurreikusitako koefizienteak:

EKITALDIAK	KOEFIZIENTEAK
1983 eta lehenagokoak	2,426
1984	2,204
1985	2,034
1986	1,915
1987	1,824
1988	1,743
1989	1,659
1990	1,594
1991	1,541

EKITALDIAK	KOEFIZIENTEAK
1992	1,495
1993	1,482
1994	1,453
1995	1,387
1996	1,337
1997	1,315
1998	1,369
1999	1,319
2000	1,231
2001	1,213
2002	1,193
2003	1,175
2004	1,161
2005	1,140
2006	1,119
2007	1,080
2008	1,054
2009	1,042
2010	1,040
2011	1,027
2012	1,019
2013	1,013

EKITALDIAK	KOEFIZIENTEAK
2014	1,013
2015	1,008
2016	1,000

Bi. Aurreko paragrafoan ezarritako koefizienteak honela aplikatuko dira:

a) Eskuratze prezioari edo ekoizpen kostuari, ondare elementua eskuratu edo ekoitzi den urtearen arabera. Hobekuntzei aplikatu beharreko koefizientea egin diren urtekoa izango da.

b) Kontabilizatutako amortizazioei, egin diren urtearen arabera.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra. Arauak indargabetzea.

Indargabeturik gelditzen dira foru dekretu honetan ezarritakoaren kontra doazen maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Bakarra. Indarrean jartzea eta ondorioak.

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean eta bere artikulatuan adierazitako egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urtarrilaren 12a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

JOSE LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasuneko zuzendaria

TERESA VIGURI MARTÍNEZ